



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Idatzitik ahozkoa: Euskal ipuingintza egungo liburuetan

2015eko azaroak 18 eta 25

Jardunaldietan agertutako edukien laburpena

[Egitaraua](#)

Sarrera

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Bigarren edizio hau ere Mintzola Fundazioaren baitan, euskal ahozko sorkuntzen inguruan, antolatu da: haurrentzako euskarazko ipuingintzaren argitalpenak aztertu eta ahozko kontaketarako baliabide bezala eskaintzen diren aukerak plazaratzeko helburuarekin.

Jardunaldietan landu diren gaiak eta gogoetak udal liburutegietako nahiz eskola liburutegietako arduradunentzat interesgarriak izateaz gain, ipuin-kontalari edo ipuingileentzat, eta arlo honetan dabilzan editore eta itzultzaileentzat ere baliagarriak izatea espero da.

Antolatzaileak

2015ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak [Mintzola Fundazioa](#), [Tolosako Udal Liburutegia](#), eta [Koldo Mitxelena Liburutegia](#) dira. Elkarre hauen laguntza izan dute jardunaldiak: [Galtzagorri Elkartea](#); [Artxibategi](#), [Liburutegi](#) eta [Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartea \(ALDEE\)](#); eta [Euskal Itzultzaile](#), [Zuzentzaile](#) eta [Interpreteen Elkartea \(EIZIE\)](#).

Antolatzaileak

 <p>Mintzola Fundazioa</p>	 <p>Tolosako Udal Liburutegia</p>	 <p>Koldo Mitxelena Liburutegia</p>
Laguntzaileak		
 <p>Galtzagorri elkartea</p>	 <p>aldee</p>	 <p>EIZIE</p>

Aurkibidea

- 2. or. • Jardunaldien egitura
- 3. or. • Tradiziozko ipuinen garrantzia
 - Ahoz transmititutako tradiziozko ipuinen ezaugarriak
 - Idatzira pasatzerakoan ematen diren aldaketa nagusiak
- 4. or. • Tradiziozko euskal ipuinen egoera egungo haur liburugintzan
 - Ahozkotasunaren presentzia haurrentzat argitaratutako liburuetan
 - Ahozko baliabideak argitaratutako testuetan
- 5. or. • Haurrentzako liburuek zaindu behar dituzten beste elementuak
 - Tradiziozko ipuinen, ipuin klasikoen itzulpengintza
- 6. or. • Tradiziozko ipuinen moldaketak eta itzulpenak
- 7. or. • Laburbilduz
- 8. or. • I. ERANSKINA: Pello Añorga. Liburu zerrenda. "Idatzitik ahozkoa: Euskal ipuingintza egungo liburuetan"

- 12. or. • II. ERANSKINA: Xabier Etxaniz. Liburu zerrenda. "Kontatzeko moduko euskal tradiziozko ipuin ezezagun horiek..."

Jardunaldien egitura

Euskal tradiziozko ipuinak liburuetan

Ipuina bera eta euskal tradiziozko ipuingintza zer den kokatu ondoren, gaur egun haurrentzako argitaratuta dauden euskal tradiziozko ipuin-liburuen egoera aztertu da, bereziki ahoz kontatzeko baliabideei erreparatuz.

Parte hartzaileak:

- 🍷 **Itziar Rekalde Luzarraga.** Ipuin kontalaria eta euskal tradiziozko ipuingintzan aritua.
Zer da ipuin bat? Tradiziozko euskal ipuingintzaren garrantzia gaur egun
- 🍷 **Xabier Etxaniz Erle.** EHUko irakaslea, idazlea eta euskal haur eta gazte literaturan aditua.
Kontatzeko moduko euskal tradiziozko ipuin ezezagun horiek
- 🍷 **Pello Añorga Lopez.** Ipuin kontalaria eta idazlea.
Idatzitik ahozkoa: Euskal tradiziozko ipuinen kontaketarako baliabideak

Itzulitako ipuin unibertsalak liburuetan

Gaur egun haurrentzako argitaratuta dauden liburuen artean ipuin unibertsalek duten egoera aztertu da, bereziki ahoz kontatzeko baliabideei erreparatuz.

Parte hartzaileak:

- 🍷 **Manu Lopez Gaseni.** EHUko irakaslea, haur eta gazte literaturan aditua; idazlea eta itzultzailea.
Haratagokoak gureratuz: Ipuin unibertsalen itzulpenaren egoeraz
- 🍷 **Patxi Zubizarreta Dorronsoro.** Idazlea, itzultzailea eta haur literaturan aditua.
Ahozko baliabideak ipuin unibertsalak itzultzean: esperientzia bat
- 🍷 **Aines Dufau Lakaberatz.** Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuko zuzendaria.
Kontatzeko moduko ipuinak: itzulitako ipuinak argitaratzeari buruzko esperientziak
- 🍷 **Bego Alabazan.** Ipuin kontalaria. ([Hitzaldiaren testua](#))
Idatzitik ahozkoa: Euskaraz argitaratutako ipuin klasikoen kontaketarako baliabideak

Tradiziozko ipuinen garrantzia:

- Ez dira umeentzako bakarrik, familia guztiarentzat, talde guztiarentzat kontatzen ziren. **Giza taldeak behar dituen oinarrizko ziurtasunak emateko sortu ziren:**
 - Funtzioa: lasaitzea, bakea ematea. “Munduaren inkognitak azaldu eta taldea lasaitu”.
 - Oinarrizko heziketa eta arauak emateko balio dute: aurkari gaiztoak identifikatu; bizi ibilbideak, estrategiak erakutsi; ... Ipuinetako protagonistaren bizi-bidaia, gure bizi-bidaia izango da.
 - Ipuinen bidez pertsona guztiok ditugun sentimenduak agertzen dira.
- Bereizi behar dira:
 - **Mitoak:** jainkoak dira protagonista.
 - **Legendak:** ahalmen bereziko gizakiak dira protagonista.
 - **Ipuinak:** protagonista normalak dira, eta giza taldeak behar dituen oinarrizko ziurtasunak emateko sortu dira. Ereduzkoak bihurtzen dira.

** Haurrentzako liburu guztiak ez dira “ipuinak”. IPUINA ≠ HAUR LIBURUA*
- Elementu indartsuak dituzte: Irudimena, hizkuntza sinbolikoa, eta pentsamendu magikoa
- Garrantzitsuak dira:
 - Taldearen imaginarioa finkatzen dute
 - Gizarte bakoitzaren sorrera azaltzen dute
 - Beldurrak azaltzen dituzte
 - Bizitza estrategia erakusten dute
 - Emozioen memoria gordetzen dute, kolektiboa zein pertsonala (ezaugarri garrantzitsuena)

Ahoz transmititutako tradiziozko ipuinen ezaugarriak:

- **Unibertsalak** dira: gizaki guztien interesak erakusten dituzte. Leku bakoitzaren kosmogonia jakinera egokitzen dira eta hor kokatzen dira tradiziozko euskal ipuinak.
- **Aldaerak** jasotzen dituzte: etengabe moldatzen doaz, ahoz aho, gizartearen aldaketak barneratuaz, kontalariak egiten dituzten egokitzapenak jasoaz, ...
- **Ahozko komunikazioaren ezaugarriak** dituzte: lexikoa zehatza; errepikapenak; sarrera eta amaierako formulak; ekintzen bidez garatzen dira pertsonak eta istorioa, ez dago deskribapenik; egitura sinplea dute, bai ekintzek bai pertsonaiek; gogoratzeko errazak dira; ...

Idatzira pasatzerakoan ematen diren aldaketa nagusiak:

- Biltzailearen ezaugarri eta ideologiara egokituta finkatzen dira:
 - Goi mailako gizartearentzat biltzen dira (Adidez: Perrault-ek, gorteko neskatxentzat jaso zuen Txanogorritxu)
 - Boterearen kritika, subertsioa desagertzen da
 - Sexua, indarkeria, eta abar desagertzen dira
 - Galbahe handia dago jaso diren ipuinetan:
 1. Biltzaile gehienak gizonezkoak dira
 2. Euskal Herrian, biltzaile gehienak eliz-gizonak dira
 - Jean François Cerquand (zerga biltzailea)
 - Mayi Ariztia (oso elizkoia)
 - Wendworrth Webster (eliz gizona)
 - Jean Barbier (eliz gizona)
 - Resurreccion Maria Azkue (eliz gizona)
 - Joxe Miel Barandiaran (eliz gizona)
 - Joxe Arratibel (eliz gizona)
- Istorioen aldaerak galdu eta testuak finkatu egiten dira (testu kanonikoak)
- Sinpletasuna galtzen da: hizkuntza aldetik eta istorio aldetik

Tradiziozko euskal ipuinen egoera egungo haur liburugintzan:

- Laburbilduta, hau da aurkitu daitekeena:
 - Bilduma originalak
 - Hizkuntza jasoan egindako bildumak (filologoentzat,...)
 - Haurrentzat egindako bilduma eta ipuin solteak daude: Gehienak agortuak
- Haurrentzat edizio erakargarriak falta dira
- Orain dela 35 urte egindako bilduma da oraindik ere onena.

Ahokotasunaren presentzia haurrentzat argitaratutako liburuetan:

- **Lehen aldia: 1973-1983.** Haur liburuak argitaratzen hasi zen garaia (aurretik ere zerbait izan arren)
 - Haurrengan pentsatutako ediziorik ezagunenak garai honetakoak
 - Ahozko tradizioa literatura idatzira hurbilduko da, ahozko baliabideak ahaztuta.
- **Bigarren aldia: 1984-1995.** Ahokotasunaren inguruko eztabaida sakona
 - Argitalpen gutxi
 - Literaturan, ahokotasunaren inguruko eztabaida sakona: idazle askok ahozko baliabideak landuko dituzte. Herri literaturari garrantzi handia emango zaio.
 - 1986 inguruan ipuin kontalariak hasi ziren kontatzen: Koldo Ameztoi, Pello Añorga, ...
- **Hirugarren aldia: 1995-2009**
 - Ereineko edizio laburrez gain, ez dago haurrentzat liburu azpimarragarririk.
 - Aurreko aldiko mugimenduari esker, ahokoaren garrantziaz konturatuta, ahotik ahorako kontraerak biltzen hasiko dira batzuk; eta ahokora hurbilduko da haurrentzako literatura.
 - Ahozko baliabideak erabiltzen hasiko dira
- **Laugarren aldia: 2009-2014koa**
 - Argitalpen solteak
 - Galtzagorri elkartearen baitan gertatzen da ahokotasunaren inguruko lan handia: ahozko tradizioko ipuinak ahokora hurbilduko dira.
 - Ahokora hurbilduz argitaratuko dira liburu batzuk.

Ahoko baliabideak argitaratutako testuetan:

- Behar-beharrezkoak dira testuetan:
 - Ahoz transmititutako ipuinak dira
 - Haurrak “entzun” egingo ditu liburu hauek: heldu batek ahoz goran irakurriko dio
 - Haur eta helduaren arteko harremana
 - Haurrak liburua “objektu” bezala
 - Testuak erritmoa, arnasa izan behar du. Andersenek ahoz goran “frogatzen” zituen bere ipuinak
 - Herri literatura iturri aberatsenetakoa da ahoko baliabideak ikasteko
- Ahoko baliabide batzuk:
 - Erritmoa, arnasa: ozen irakurtzean arnasa galdu gabe jardun ahal izatea
 - Musikaltasuna: kontatutako abestiak bezalakoak dira ipuinak
 - Onomatopeiak
 - Abesti zatiak
 - Atsotitzak
 - ...
 - Errepikapenak: ekintza asko daudenean laguntzen du
 - Hasiera eta amaierako formulak
 - Puntuazioa zaindu

- Aditza aurreratu
- Estilo zuzena, zeharkakoarekin batera
- Denbora aldaketak: lehen aldia eta oraina nahasi
- Elipsia
- Asindetona
- Aliterazioa
- Anaforak
- Diskurtso akumulatiboa, erredundantzia
- Ez deskribapenik: ekintzak deskribatzen du pertsona
- Irudiak
- ...

Haurrentzako liburuek zaindu behar dituzten beste elementuak:

- Irudiak egokiak eta testua osatu behar dute (elementu gehigarriak eman ditzateke)
- Testuen eta irudien arteko oreka zaindu behar da
- Letra tipoa zaintzea eta tamaina erabilera kontaketa errazteko (ad. Hiru txerrikumeak, Txalaparta, 2008)
- Euskalkien erabilera: Lehenengo hezkuntzan, murgiltzea errazteko zuberotarrez ere argitaratzen dira (IKAS)
- Soinudun grabazioa gehitzen zaionean liburuari ([ikus IKASen bilduma](#)):
 - Musikarik ez, ahotsa bakarrik
 - Soinuen erabilera haurren autonomia sustatzeko (orria pasatu behar denean,...)

Tradiziozko ipuinen, ipuin klasikoaren itzulpengintza:

- Historia:
 - XIX- 1965: Testu osoak itzuli ziren, jatorrizko bertsiotatik
 - 1960-1990: Hegoaldean, gaztelaniaz zeuden moldaketetatik abiatu ziren itzulpen gehienak.
 - 1990- gaur egun:
 - Testu osoak (jatorrizko hizkuntzetatik)
 - Hegoaldean, gaztelaniazko moldaketen itzulpenak
 - Gure moldaketak eta edizioak (Euskal Herriko errealitatera ekartzeko elementuak, leku izenak, ...)
- Itzultzean kontutan hartu beharrekoak:
 - Herri ipuinak eta egiledunak ezberdindu behar dira. Ezaugarri ezberdinak dituzte:
 - Herri ipuinak: Eburne zuri, Mari errauskin, Hiru txerritxoak, ...
 - Egiledunak: Andersen, Collodi,...
 - Jatorrizko testuak erabili behar dira itzulpenak eta moldaketak egiteko.
 - Tradiziozko ipuinen ezaugarriak ezagutu (hizkuntza sinbolikoa, egitura, bertsiotatik ezberdinak ...)
 - Ahozko baliabideak erabili

Tradiziozko ipuinen moldaketak eta itzulpenak:

- Jatorrizko testuak oinarri (testu kanonikoak, jatorrizko hizkuntzan): ipuinaren benetako egitura ezagututa moldatu ahal izateko.
- Ahozko baliabideak.
- Testu sinplea baina ez sinplista (batzuetan moldaketak gehiegizkoak dira).
- Ekintzek osatzen dute ipuina: ez deskribapenak, ez gogoetak, ...
- Ipuinek duten hizkuntza sinbolikoaren ezagutza zabaldu behar da:
 - Ezezagutzatik, “onkeria” deritzon fenomenoaren ematen da (“buenismo”), dena ona eta polita bihurtzen duen jarrera. Baina “gaiztoak hil egin behar du”.
 - Hizkuntza sinbolikoa ezagutarazteko ekintzak behar dira.
 - Ipuinen sinbologia eta ulermena errazteko erreferentziatzko lanak:
 - [Bruno Bettelheim](#): 1976, *The Uses of Enchantment : The Meaning and Importance of Fairy Tales*. [Psicoanálisis de los cuentos de hadas (es); *Psychanalyse des contes de fées* (fr)]
 - [Yvanne Chenouf](#). *Les actes de lecture*. Association française pour la lecture; *La place de l'oralité dans la lecture*, Conférence AGEEM.
 - Sheldon Cashdan: 1999, *The Witch Must Die: The Hidden Meaning Of Fairy Tales* [La bruja debe morir (es)]
 - [Clarissa Pinkola Estés](#): 1992, *Women who run with the wolves : myths and stories of the wild woman archetype*. [Femmes qui courent avec les loups (fr); *Mujeres que corren con los lobos* (es)]

Laburbilduz:

- 1. Tradiziozko ipuinak gaur egun ere beharrezkoak dira pertsonaren identitatea garatzeko**
Ipuinen bidez pertsona guztiok ditugun emozioak eta sentimenduak agertzen dira, eta protagonistaren bizi-bidaia, gure bizi-bidaia izango da. Pentsamendu magikoa garatzeko ezinbestekoak dira.
- 2. Ipuin kontalariak ipuinak kontatzerakoan moldaketak egiteko askatasun osoa dute.**
Ipuin kontalariak batez ere jatorrizko testuak behar dituzte beraien sorkuntza garatzeko. Haurrentzako argitalpenak erabili ditzakete, irudien bidez kontaketa laguntzeko, baina ez da ipuin kontalarien beharrian nagusia.
- 3. Haurrek liburua “entzun” egiten dute.**
 - Argitaratutako liburuak heldu batek ozen irakurrita jasotzen dute haurrek:
 - Galtzagorri Elkarteak *Bularretik Mintzora* egitasmoan dauden EAEko 19 herrietan egindako ebaluazioko datuetatik: Familian haurrei ipuinak amek kontatzen dizkie kopuru handiengan; eta ondoren, amonek.
 - Frantzia 2009an egin zen inkestaren arabera, gurasoen artean gehienetan amak dira haurrei ipuinak irakurtzen dietenak.
 - Haurrentzat euskaraz argitaratutako liburu asko ez daude ozen irakurtzeko pentsatuta.
 - Liburua objektua da haurrentzat: argitalpen osoa zaindu behar da.
- 4. Haurrentzat egokitutako euskal tradiziozko ipuinen argitalpenak falta dira.**
Orain dela 30 urte egindakoak dira ditugun onenak eta gehienak agortuta daude.
- 5. Tradiziozko ipuinak moldatu/itzuli behar direnean:**
 - **Jatorrizko testuaren ezagutza sakona ziurtatu behar da: egitura, elementu sinbolikoak,...**
 - Ekidin sinplekeriak
 - Ekidin “onkeria” (*buenismo, Disney efektua,...*)
 - **Testuetan ahozotasuna zaindu behar da.**
Euskal tradiziozko ipuinen kasuan, eta baita itzulitako ipuinen testuetan ere
 - **Tradiziozko ipuinak giza taldeak behar dituen oinarrizko ziurtasunak emateko sortu ziren (ardatza pertsona).**
Idatziz jasotzerakoan galbahe handia gertatu zen biltzaileen eskutik: erlijioa, boterea,... eta giza taldearen erdiarentzat, emakumeentzat, beharrezkoak diren ziurtasun eta elementu sinboliko asko desagertu zirela sumatu daiteke.

I. ERANSKINA: Pello Añorga. Liburu zerrenda

Idatzitik ahozpora: Euskal ipuingintza egungo liburuetan

Ahozporkotasunaren presentzia haurrentzat argitaratutako liburuetan:

- **Lehen aldia: 1973-1983.** Haur liburuak argitaratzen hasi zen garaia (aurretik ere zerbait izan arren)
 - Haurrengan pentsatutako ediziorik ezagunenak garai honetakoak
 - 1973 Manuel Lekuona. Txuri eta Gorri eta Kikirriki. Egan.
 - 1979. Jose Mari Satrustegi. Ipuin miresgarriak. Gipuzkoak Ikastolen Elkarteak.
 - 1981. Lapur zuriak
 - 1983. Axelko eta otsoko
 - 1980 Joxe Arratibel. Kontu zaharrak. Gran Enciclopedia vasca.
 - 1980 Elkarrek argitaratutako du LUMABELAR saila, Xabier Kintanak idatziak.
 - AXUT Saila. 10 libururekin. Sagrario Yarnozek apailatu zituen: Patxi Errementaria, Makilakixki, Barbantxo, Zapataritxiki.
 - Ipuin harrigarriak I, II, III, IV eta V.. 5ale.
- **Bigarren aldia: 1984-1995.** Ahozporkotasunaren inguruko eztabaida sakona
 - Argitalpen gutxi:
 - 1992. Jose Belmonte. Altxorra saila. Bruño. (lehen hezkuntza) Bizkaia aldean, helduentzat:
 - 1995. Manuel Etxebarria Bizkaialdeko ipuin-Esaundak, Ibaizabal
 - 1989 Xabier Kaltzakorta, Luis Mari Larringan, Juan Manuel Etxebarria. Tradiziozko ipuingintza. Labayru ikastegia.
- **Hirugarren aldia: 1995-2009**
 - Ereineko edizio laburrez gain, ez dago haurrentzat liburu azpimarragarririk.
 - Aurreko aldiko mugimenduari esker, ahozporkotasunaren garrantziaz konturatuta, ahotik ahorako kontaerak biltzen hasiko dira batzuk;
 - (2000) Patxi Zubizarreta. URREZKO GILTZA 1, 2 eta 3. Erein.
Bizkaian:
 - (1998).Antton Irusta. Luki Barrabasa. Gero.
 - (2002). Juan Manuek Etxebarria. ETXEA IPUIN ESKOLA. Ibaizabal.
 - (2002) Xabier Etxanizek. Geure ipuinak. Pamiela.
 - eta ahozpora hurbilduko da haurrentzako literatura.
 - (2007) Juan Kruz Igerabide. Zaku bete hauts. Aizkorri (tipografia zaindu gabe)
 - 1998 Juan Kruz Igerabide. Jonas eta hozkailu beldurtia. Aizkorri. (6-12 or)
 - (2005). Erein. Patxi Zubizarreta. Urrezko giltza. Erein. (72 or.) eta (9-10or.). (CD eta guzti)
 - 2004 Pello Añorga. Aulerio. Elkar

- Laugarren aldia: 2009-2014koa

- Argitalpen solteak:
 - 2011. *Mitxitxi Marriau Begoña Durruty*. Erein
 - 2015. *Jexux Eizagirre. Zozomikoteak. Dobera euskara elkarteak*. Hernani.
- Galtzagorri elkartearen baitan gertatzen da ahozkotasunaren inguruko lan handia: ahozko tradizioko ipuinak ahozkoa hurbilduko dira.
 - 2009 *Bularretik mintzora*
 - 2009. *Bularretik mintzora*
 - 2011. *Jolas molas*
 - 2012. *Sasi guztien gainetik*
 - 2012 *Kontuari kontu, ipuin bilduma. 4 ipuin*.
 - *Errege zorria*.
 - *Perutxo txikia*
 - *Ilargia gazta handi bat*
 - *Hartza otsoa eta azeria*
- Ahozkoa hurbilduz argitaratu diren liburu interesgarri batzuk:
 - 2012. *Juan Kruz Igerabide/Elena Odriozola. Eguberria. Nerea/ Elena Odriozola*.
 - 2014 *Juan Kruz Igerabide. Ur Erori nahi ez zuen tanta. Denonartean*.
 - 2014 *Poemak eta kantak. CD eta guzti*.
 - 2013. *Pello Añorga. Zapatagorri. Denonartean*.

Hitzaldirako erabilitako bibliografia:

<http://www.ahotsak.com/>

Alkain, I. *Gerrateko ibilerak I, II eta III*. Sendoa, 1982. [Auspoa Bilduma](#).

Alonso, J. (Gara 2015/11/7).

Altuna, M. *Ipuin harrigarriak I, II, III, IV eta V*. Elkar, 1983.

Añorga, P. *Aulerio*. Elkar, 2004.

Añorga, P. Haur literatura eta ahozkotasuna IN *Behinola aldizkaria*, 2011, 24 zkia, 21-28 or.

Añorga, P. *Zapatagorri*. Denonartean, 2013.

Arratibel, J. *Kontu zaharrak*. Gran Enciclopedia Vasca, 1980.

Arratibel, J. *Kontu zaharrak*. Erein, 1995.

Arrizabal, J.M. *Baso mutilak*. Sendoa, 1979. [Auspoa Bilduma](#).

Atxaga, B. *Txitoen istorioa*. Erein, 1984.

Atxaga, B. *Henry Bengoa inventarium*. Elkar, 1988.

Atxaga, B. *Zakur amorratuen kontuak*. Emak Bakia; Pamiela, 1993.

Atxukarro, I. *Irriparrezko printzak*. Sendoa, 2012. [Auspoa Bilduma](#); 323.

Azurmendi, X. *Atzoko Zegama*, Eusko Ikaskuntza, 1997.

Belmonte, J. *Altxorra saila*. Bruño, 1992.

Durruty, B. *Mitxitxi Marriau*. Erein, 2011.

Eizagirre, J. *Zozomikoteak*. Hernani: Dobera Euskara Elkarte, 2015.

Esnal, P. *Xaxpi*. Desclee de Brouwer, 1993.

Etzaniz, X. *Geure ipuinak*. Pamiela, 2002.

Etxebarria, M. *Bizkaialdeko ipuin-Esaundak*. Ibaizabal, 1995.

Etxebarria, J.M. *Etxea ipuin eskola*. Ibaizabal, 2002.

Igerabide, J. K. Haur literatura eta ahozkotasuna IN *Bularretik mintzora*. Erein, 1993, 43-65 or.

Igerabide, J.K. *Bularretik mintzora*. Erein, 1993.

Igerabide, J.K. *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Aizkorri, 1998.

Igerabide, J.K. *Zaku bete hauts*. Aizkorri, 2007.

Igerabide, J.K. *Amilami*. Elkar, 2008.

Igerabide, J.K.; Odriozola, E. *Eguberria*. Nerea, 2012.

Igerabide, J.K. *Ur Erori nahi ez zuen tanta*. Denonartean, 2014.

Irusta, A. *Luki Barrabasa*. Gero, 1998.

Kaltzakorta, X. ; Larringan, L.M. ; Etxebarria. J.M. *Tradiziozko ipuingintza*. Labayru ikastegia, 1989.

Kintana, X. *Lumabelar saila*. Elkar, 1980.

Lekuona. M. *Txuri eta Gorri eta Kikirriki*. Egan, 1973.

Perurena, P. *Leitzako errege-erreginak*. Bizkaia Kutxa, 1996.

Rozas, I. *Beltzuria*. Pamiela, 2014.

Salaberria, S. *Neronek tirako nizkin*. Sendoa, 1964. [Auspoa Bilduma](#).

Satrustegi, J.M. *Ipuin miresgarriak*. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, 1979.

Satrustegi, J.M. *Lapur zuriak*.Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, 1981.

Satrustegi, J.M. *Axelko eta otsok*. Gipuzkoako Ikastolen Elkarte, 1983.

Uztapide. [Lehenko egunak gogoan](#). Sendoa, 1974.

Yarnoz, S. AXUT Saila. Elkar, 1983.

Zabala, A. *Pello Errotaren bizitza*. Sendoa, 1964. [Auspoa Bilduma](#).

Zabala, A. *Arrantzaleen bizitza*. Sendoa, 1978. [Auspoa Bilduma](#); 133.

Zabala, A. *Arrantzaleen bizitza*. Sendoa, 1978. [Auspoa Bilduma](#).

Zabala, A. *Auspoaren auspoa, II*. Sendoa, 1996. [Auspoa Bilduma](#).

Zuazo, K. *Deba Ibarreko Euskeria*. Badihardugu Euskara Elkarte, 1999.

Zubimendi, J.R. ; Esnal, P. *Idazkera-liburua*. Euskal Jauraritza Kultura Saila, 1993.

Zubizarreta, I. *Bularretik mintzora*. Galtzagorri Elkarte, 2009.

Zubizarreta, I. *Jolas molas*. Galtzagorri Elkarte, 2011.

Zubizarreta, I. *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri Elkarte. 2012.

Zubizarreta, I. *Kontuari kontu, ipuin bilduma*. Koldo Mitxelena ; Galtzagorri Elkarte, 2012.

Zubizarreta, P. *Txomin Ipurdi*. Erein, 2000. Urrezko Giltza bilduma; 1, 2, 3.

Zubizarreta, P. *Atxiki sekretua*. Elkar, 2004.

Zubizarreta, P. *Urrezko giltza*. Erein, 2005.

II. ERANSKINA: Xabier Etxaniz. Liburu zerrenda

Kontatzeko moduko euskal tradiziozko ipuin ezezagun horiek...

AHOZKO IPUINETIK IPUIN IDATZIRA

EDIZIO IDATZIAK GAUR EGUN – BILDUMAK (Haurrentzako edizioa ez)

- *Ixtorio-Mixterio* (Barbier), Labayru 1989
- *Amattoaren uzta* (M.Ariztia), Elkar 1982
- *El mundo en la mente popular vasca* (Barandiaran), Auñamendi, 1961.
- *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak* (Cerquand), Txertoa 1985
- *Ipuinak* (W. Webster), Kriseilu 1993
- *Euskalerraren Yakintza* (R. M. Azkue), Espasa Calpe 1942

EDIZIO IDATZIAK GAUR EGUN – BILDUMAK

- *Kontu zaharrak* (Arratibel), Erein 1995
- *Geure ipuinak* (Etxaniz), Pamiela 2000.
- *Atxiki sekretua. Sorginen eskuliburua* (Zubizarreta), Elkar 2004.
- *Amilami. Laminen istorioak* (Igerabide), Elkar, 2008.
- *Zaku bete hauts. Euskal herriko maitagarri ipuinak* (Igerabide), Aizkorri 2007

EDIZIO IDATZIAK GAUR EGUN – LIBURUAK

- *MARI saila (Makilakixki, Sorgin gaiztoa,...)* Elkar.
- *Txomin ipurdi*. Erein. AGORTUTA
- *Sorgin saila*. Elkar AGORTUTA
- *Altxorrak*. Bruño AGORTUTA